



## 1. ZER DA?

- Ikasturte-hasierako lanpostuak esleitzeko prozedura telematikoak eta egonkortzeko prozedura kudeatzeko agindu berria.
- Era honetan kontratuak ez lirateke abuztuaren 31n etengo.
- Langilea bakantean mantenduko da harik eta lanpostua legez bete edo titularra itzultzen den arte.

*"LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Lanpostuak hautatzea eta esleitzea.*

*"Sistema, plataforma eta aplikazio informatikoak egokitu eta adaptatu bitartean, eta 2020-2021 ikasturteko ondorioetarako soilik, aldi baterako beharrak betetzeko zerrendako hautagaiei lanpostuak telematikoki esleituko zaizkie, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko Aginduan ezarritako prozeduraren arabera. Agindu horren bidez, Ikasturte hasierako esleipena, ordezkogaien zerrendako kideei dagokienez."*

Hau da, 2. eta 3. puntuan azaltzen diren esleipenenetarako agindu eta argibideak ez dira 2020 urteko esleipenen prozesuan aplikatuko, hauek, 2021 urteko esleipenean jarriko dira indarrean. Beraz, **2020-21 urteko lanpostu hutsen esleipena azken urte hauetan bezala gauzatuko da.**

Nahiz eta aurtengo esleipen prozesua 2011tik indarrean dagoena izan, egonkortasun agindua aurrera doa.

## 2. IKASTURTE-HASIERAKO ESLEIPENA:

- Abuztukoak (ohiko esleipen-fasea) eta irailekoak (ezohiko esleipen-fasea).
- Bi motako eskabideak egongo dira eskaera egiteko momentuan:
  - Nahitaezkoak:** zure espezialitate, Hizkuntza Eskakizun eta lurraldeko aukerei dagozkien lanpostu guztiak.
  - Bereziak:** ibiltariak, hirueleduna, zailtasun berezikoak, ikasturtea baino gutxiagoko iraupena dutenak.

## 3. LANPOSTU-ESLEIPENA

Langileak eskabidea osatzerakoan **borondatezko lanpostuak** banaka sartu ditzake hurrenkera zenbakia jarritz edo eskaera generikoa eginez, soilik ikastetxea, herria, zonaldea edo herrialdea jarritz.

- a) Borondatezko lanpostu-eskabideak nahitaezkoak baino lehenago esleituko dira.
- b) Zerrendatutako lanpostuen lehentasun-ordena eskaera-zenbakiak adieraziko du.
- c) Borondatezko eskabideen esleipena egiteko, ordezkogaien zerrendako **goragoko maila** hartuko da kontuan. Hau da, ordezkogaien zerrendan puntu gehien duen lehentasuna izango du.
- d) Esleipenean parte hartzera derrigortuta dauden langileek, borondatez lanposturik eskatzen ez badute, edo eskaeretako bat ere lortzen ez badute, aplikazio informatikoak sortutako nahitaezko eskaeretako lanposturen bat esleituko zaie nahitaez, baldin eta lanpostu horiek beste parte-hartzaile batzuei esleitu ez bazaizkie.
- e) Nahitaezko eskabideen esleipenak egiteko, lanpostua betetzeko parte hartu behar duten pertsonen zerrendako **beheragoko maila** hartuko da kontuan. Hau da, eskabidea egitera derrigortuta daudenen artean puntu gutxien dituenak izango du lehentasuna. Ordezkaguneak duen funtzionamendu berdina izango du.

## 4. NOR EGONKORTUKO DA?

Ikasturte hasierako esleipenetan (abuztuan zein irailean) lanaldi osoko eta urte osorako lanpostua lortzen dutenak AUTOMATIKOKI egonkortuko dira.

## 5. DERRIGORREZ ALA BORONDATEZ?

**Derrigorrez:** Jardunaldi osoko eta urte osorako lanpostuak badira.

**Borondatez:** Lanpostu berezietan, hau da, lanaldi murriztuak, ibiltariak, hirueleduna, zailtasun berezikoak eta ikasturte osoa iraungo ez duten lanpostuak badira.

Esleipen prozesua baino lehen hautagaiek egonkortzea nahi duten ala ez adierazi beharko dute.

## 6. NON EGONKORTZEN ZAITUZTE?

- Ikastetxe bateko lanpostu hutsean ("bakante" batean) edo karrerako funtzionario batek askatzen duen lanpostuan.
- Zauden ikastetxean, zure lanpostuaren ezaugarri berdina (espezialitatea, hizkuntza eskakizuna eta jardunaldi mota) duten lanpostuetan.

## 7. UKO EGIN AHAL DA?

- **Jardunaldi murriztuan eta lanpostu berezietan** egonez gero, **ikasturte bat** pasa ondoren uko egiteko aukera egongo da. Aurreko ikasturtean lanpostua gaizki esleitu bada eta hala adierazi bada, ere bai.
- Gainontzeko lanpostuetan (jardunaldi osoetan eta lanpostu arruntetan) uko egin ahal izango da **bi ikasturte** egon ostean.

## 9. NORK DAUKA LEHENTASUNA EGONKORTZE PROZESUAN?

Ikastetxe batean pertsona bat baino gehiago egonkortuta egon daiteke ezaugarri bereko lanpostuan. Lanpostua arauz betez gero, NORK GALDUKO DU EGONKORTASUNA?

**GOGORATU**, egonkortua dagoen langilea hartu duen lanpostuaren ezaugarriei lotuta dagoela (espezialitate, HE eta lanaldiari), beraz ezaugarri berdineko lanpostuan dauden bi langile egon daitezke ikastetxean egonkortuta. Nor geratuko da ikastetxean? Berdinketa nola hausten da?

Langileak ikastetxean jarraian daramatzan hilabeteko 3 puntu jasoko ditu eta horri ordezkoen zerrendan duen puntuazioa gehituko zaio. Puntuaketa handiena jasotzen duen irakaslea ikastetxean geratuko da eta besteak egonkortasuna galdu eta ohiko esleipenetara joan beharko du.

Ikastetxe batean jarraian lanean egoteagatik metatzen den puntuaketa berdinketa apurtzeko soilik erabiliko da. Gainontzean, esleipenetara ordezkogaien zerrendako puntuaketarekin soilik joango da.

### ADIBIDEA:

**A hautagaia.** 200 puntu ordezkoen zerrendan. Eskolan 2 urte,  $200+72 = 272$  puntu.

**B hautagaia.** 150 puntu ordezkoen zerrendan. Eskolan 4 urte,  $150+144 = 294$  puntu.

A hautagaiak egonkortasuna galduko luke eta esleipenetan 200 punturekin parte hartuko luke. Bere borondatez uko egin ez duenez antzinasunagatik metatuak dituen 72 puntuak mantenduko lituzke.

Langile batek egonkortua dagoen lanpostuari uko egingo balio, antzinasunagatik lortu dituen puntuak galduko lituzke.

Egonkortasuna galduz gero langilea egonkortu ahal izango da gaituta dagoen beste espezialitate batean, beti ere ikastetxe berdinean lanposturen bat hutsik badago.

## 9. EGONKORTZE EGUTEGIA

- 2020ko esleipenak: Haur eta Lehen Hezkuntzako lanpostuak hurrengo ikasturtean eta hurrengoetan arauz bete ezean, egonkorrak izango dira.
- 2021ko esleipenak: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako lanpostuak hurrengo ikasturtean eta hurrengoetan arauz bete ezean, egonkorrak izango dira. Bigarren puntu hau aginduan ez dator baina Hezkuntza Sailarekin izandako bileretan horrela adierazi digute. EPEa atzeratzeak data baldintzatu lezake.

# EGONKORTASUNA

